



ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA
MAIRIE
D'OSSÈS

HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko apirilaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, apirilaren bostean, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatua zena: CHAMALBIDE Corinne

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna: 2022ko martxoaren 31

Afitxatze eguna : 2022ko martxoaren 31

7.ERABAKIA : IRAUNKORRA EZ DEN LANPOSTU BATEN SORTZEA HERRIKO LANGILEAREN DOBLATZE GARAI BATEN KARI

Nomenklatura : 4.2

Jaun Auzapezak proposatzen du Herriko Kontseiluari iraunkorra ez den laguntzaile tekniko lanpostu baten sortzea denbora osoz herriko langilearen doblatze garai baten kari.

Lanpostua sor dilaite 2022ko uztailaren 1etik 2022ko agorrilaren 31rat.

Asteko oren kopuruaren batzbestekoa 35 orenetan finka dilaite.

Lanpostu hau C sailkapen hierarkikoan sartzen da.

Lanpostua kontratupeko langile batek hartuko luke Funtzio publikoko Kodigo orokorreko L.332-23 1° artikulua aplikatuz. Honek baimentzen du, lan zama memento batez emendatzen delarik, langile baten hartzea, gorenaz 12 ilabetentzat, urte ta erdiko epe batean.

Jaun Auzapezaren azalpen gehigarriak entzunik eta deliberatu ondotik,

Herriko Kontseiluak

ERABAKITZEN DU: iraunkorra ez den laguntzaile tekniko lanpostu baten sortzea denbora osoz 2022 ko uztailaren 1tik goiti

BAIMENTZEN DU: Auzapeza loturik den kontratuaren izenpetzea,

ONARTZEN DU: Auzapezaren proposamenen osotasuna

ZEHAZTEN DU: behar diren kredituak badirela aurrekonduan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko apirilaren 5an

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2022/04/27an publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/04/27an.

